

KONTSUMOBIDE-KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUAREN ETA EUDEL-EUSKADIKO UDALEN ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, ENPRESA TXIKIETAN ETA ENPRESA SORTU BERRIETAN KONTSUMOAREN ARLOKO JARDUNBIDE EGOKIAK SUSTATZEKO.

Erandion, 2021eko maiatzaren 31n

BILDU DIRA

ALDE BATETIK, Javier Hurtado Domínguez jauna, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua eta KONTSUMOBIDE-Kontsumoko Euskal Institutuaren lehendakaria (helbidea: Santiago etorbidea 11, Gasteiz).

BESTETIK, Gorka Urtaran Agirre jauna, EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartearen elkarburua (helbidea: Manuel Iradier kalea 7, 2. solairua, Gasteiz).

PARTE HARTU DUTE

Ordezkatzen dituzten erakunde edo entitateen izenean (Hitzarmenaren aldetzat joko dira), eta elkarri aitortzen diote Hitzarmen hau sinatzeko behar besteko aginpidea eta eskumen juridikoa; horretarako, honako hau

ADIERAZTEN DUTE

1.- KONTSUMOBIDE-Kontsumoko Euskal Institutua sortzeari buruzko ekainaren 29ko 9/2007 Legearen 3.1 artikulua araber, KONTSUMOBIDE-Kontsumoko Euskal Institutuaren xedeak honako hauek direla: Eusko Jaurlaritzak kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsaren eta babesaren arloan dituen politikak definitzea, planifikatzea, bultzatzea eta betearaztea.

2.- Besteak beste, KONTSUMOBIDEk honako eginkizun hauek dituela: kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak defendatzea, formakuntza eta hezkuntza, bitartekaritza eta arbitrajea sustatzea, kontsulta- eta erreklamazio-prozedurak ezartzea eta aplikatzea, eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarreak arautzea eta sustatzea.

3.- EUDEL-en xedea dela, besteak beste, erakundearen arteko lankidetzaren sustatzea, bere jardueraren barruan.



4.- KONTSUMOBIDEK Euskadiko kontsumo-operadoreak ezinbestekotzat jotzen dituela kontsumo arduratsu eta jasangarriaren kultura sortzeko, eta helburu horretan garrantzi berezia dutela tokiko saltokiek eta enpresa sortu berriek, batez ere ETE-ek.

5.- Udalek ekintza garrantzitsuak garatzen dituztela tokiko merkataritzaren, kontsumoaren eta kultura ekintzailea sustatzeko politiken alorrean.

6.- KONTSUMOBIDEK ETE-ei eta ekintzaileei zuzendutako kanpaina bat prestatu duela, eta EUDELeK kanpaina hori garatzen lagunduko duela.

AKORDIOAK

LEHENENGOA.- Lankidetzaren hitzarmen honen xedea da KONTSUMOBIDE-Kontsumoko Euskal Institutuaren eta EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartearen arteko lankidetzaren esparru bat ezartzea da, KONTSUMOBIDEK diseinatutako eta ETE-ei eta ekintzaileei zuzendutako kanpainaren eragina indartzeko.

Hitzarmenak eta bertatik eratorritako jarduerak ezin diete kalterik egin KONTSUMOBIDERi eta EUDELi dagozkien eskumen eta funtzioei.

BIGARRENA.- KONTSUMOBIDEK kontsumitzaileen eskubideen arloko formakuntza-modulua eta informazio-materiala ditu, ekintzaile berriei zuzenduta, eta udalek eskatzeko moduan egongo da. Informazio-materiala tokiko saltokien eta/edo ekintzaile berrien artean banatzeko eta erabiltzeko da, formakuntzan laguntzeko material gisa. Formakuntza-modulua KONTSUMOBIDERen eta udal interesdunaren arteko adostasunez planifikatu behar da.

HIRUGARRENA.- EUDELeK hitzarmena igorriko die udalei, KONTSUMOBIDEK egindako ekintzaileentzako eta ETE-entzako informazio-materiala eskura izan dezaten.

LAUGARRENA.- Udalek jasotako materiala agortzen dutenean, material hori berriz ere eskatu ahal izango dute. Horretarako, KONTSUMOBIDEra jo behar dute posta elektronikoz, eta KONTSUMOBIDEK materiala emango dio, ekoizpena bideragarri egiten duen eskaera-kopurua lortzen denean. Nolanahi ere, udal eskatzaileak jakinaren gainean egongo dira.

BOSGARRENA.- KONTSUMOBIDEK doan emango ditu materiala zein formakuntza-ikastaroak.

SEIGARRENA.- KONTSUMOBIDEK eta EUDELeK hitzarmen honen sinaduraren eta edukiaren berri emango dute, lehen komunikazio bateratu baten bidez eta, jarraian, erakunde bakoitzak egokitzat jotzen dituen bitartekoen bidez.

ZAZPIGARRENA.- KONTSUMOBIDEk eta EUDELeK, kontsumo sozialki arduratsuari laguntzeko, bi erakundeen arteko lankidetzan sakontzearen garrantzia aitortzen dute, eta, hortaz, lankidetzabide berriak zabaltzeko aukera jorratuko dute.

ZORTZIGARRENA.- Hitzarmen honek lankidetzajarduera bat eratzen du, eta ez du betebeharr ekonomiko edo kontraprestazio berririk sortzen ezein alderentzat.

BEDERATZIGARRENA.- Aldeak behartuta daude EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAN eta Datuak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko 3/2018 Legean ezarritakoa betetzera, hitzarmen honen ondoriozko jardueren eraginez eskuratzen dituzten datu pertsonalei dagokienez.

HAMARGARRENA.- Hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean, eta, aldeztatik ezeztatzen ez baldin bada, 2021eko abenduaren 31ra arte iraungo du.

KONTSUMOBIDEren lehendakaria,

EUDELen elkarteburua,



Javier Hurtado Domínguez



Gorka Urtaran Agirre